

FUNTSEZKO JARDUERAK

Edozein negoziotan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira enpresak ondo jardun dezan.

Funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezeroengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru-sarrerak lortzeko. Horiek azalduko ditugu atal honetan.

Ikasleak garenez, erabilgarritasun handia ateratzen diegu tuperrei, askotan eskolan bazkaltzen baitugu. Askoren kexa janaria hotza dagoela izaten da. Gainera, mikrouhinak ez daudenez, ezin izaten dugu berotu. Eskolaz kanpo ere jende askok eramaten du janaria tuperretan. Horientzat arazoa berbera izan ohi da; janaria hotza eta mikrouhinik ez berotzeko.

Arazo honi aurre egitearren sortu dugu gure produktua. Bi funtzio izango ditu. Batetik tuperreko janaria hotza mantenduko du, tuper normalek bezala eta bestetik janaria berotzeko aukera egongo da, botoi baten edo eguzki plaken bitartez.

Gure funtsezko jarduera bezeroak aurkitzea eta produktuaren ideia hobetzea izango da, bezeroen behar berriak identifikatuz. Guk ez dugu ekoitziko produktua, diseinatu soilik egingo dugu. Produzitu ahal izateko Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza proiektuan lan egiten duen enpresa batekin harreman estua izango dugu, eta honek lagunduko digu gure tuperraren diseinua hobetzen eta aldaketa berriak egiten. Diseinu hori dugunean hornitzaileek produzituko dute. Hauen elkarlanari esker gure produktua aurrera atera ahal izango dugu.

Hala ere, oso garrantzitsua izango zaigu enpresaren webgunea kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere.

